







01

ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

Jarduera fisikoa modu egoki batean egitea, ondo pasatzea eta ohitura osasuntsuak sustatzea da helburua, jarduera guztiak euskaraz izanik. Hau horrela, igeriketa, boleibola, futbola, areto futbola, eta pilota egongo dira. LH 3-6. mailako ikasleei zuzenduta (kirol eskolak).

IZEN-EMATEA



Kirol eskola hauetan parte hartzeko eskola kirolean (LEK) izena ematea ezinbestekoa da.

KONTAKTUAK



ARDURADUNAK



Mikel Aizpurua eta Gorka Gabilondo, 943 772 025
kirolak@arizmendi.eus



IZEN-EMATEA



Alexia bidez egingo da



informazio +

Ikasle kopuru minimo batek izena ematen badu autobus zerbitzua egongo da.



02

LEK



6 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutil guztiei zuzenduta dago. 6-8 urte bitarteko neska-mutilentzat jolasez osaturiko Jolashezi programa eskaintzen da. 8-12 urte bitarteko neska mutilentzat, beraiei egokitutako kirol aniztasuna bultzatzen duen programa eskaintzen da. Bailarako elkarteekin elkarlana jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez bailarako haurren GARAPEN INTEGRALaren alde lan egiten da.

NORENTZAT

→ LH 1-4 mailakoentzat

HASIERA

→ Urriko lehenengo astean

**EKINTZEN
INFORMAZIOA**

→ Sakatu ikonoan informazioa ikusteko



**ARDURADUNAREN
KONTAKTUA**

→ Julen Aranbarri, 647 474 459 (Gaztelupe, Gazteluondo eta Santa Teresa)

**IZEN-
EMATEA**

→ LEK-eko web gunearen bitartez egingo da uztailaren 20tik irailaren 22era egongo da zabalik. Sakatu ikonoan izen-ematea egiteko. Aurkitu zuen gunea eta bertan daukazue informazio guztia.

**KIROL
EGOKITUA**

→ Disgaitasun fisiko zein mentala duten ikasle guztiei egokitutako jarduera fisikoa bultzatzen duen eskaintza da.

LH 1 mailatik aurrerako ikasleentzat

03

CHICUNG-MEDITAZIOA

Joko kontziente eta asertiboak, meditazio mota ugari eta Chi-kung-aren bidezko barne-energiaren maneia, kontzientzia konektatu eta hedatzeko helburura eramango gaituzte. Programa ezin hobea da adimenaren, emozioen eta gorputz fisikoaren arteko loturak aurkitu nahi dutenentzat. Modu integral honen bidez geure erabaki pertsonalak hartzen ikasiz, une bakoitza, eguna eta bizitza, momentu kontziente, harmoniatu eta onuragarrietan eraldatu ahal izango da. Nortasun sortzaileagoa eta asertiboagoa lortzen laguntzeaz gain, kontzentrazioarako, lasaitasunerako, argitasunerako eta norbera eta besteak errespetatzeko gaitasuna ere garatuko dute.

NORENTZAT



LH 1-4 ikasleentzat

**EGUNA ETA
TOKIA**



Astelehenetan
Arimazubi

ORDUTEGIA



LH1-4 17:00-18:00

KUOTA



30€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

**PLAZA
MUGATUAK**



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15

**ARDURADUNAREN
KONTAKTUA**



Gaizka, 653 708 409

**IZEN-
EMATEAK**



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20tik irailaren 22ra



04

STREET DANCE



Street Dance edo Dantza Urbanoan, lagun artean, Dantza modalitate eta koreografia desberdinez gozatzeko aukera izango duzu. Sormena mugimenduaren bidez lantzeko, inprobisazio, pauso eta erritmo desberdinak ikasiz. Talde-lan eta autoestimaren garapena hobetzen saiatuko gara, gorputz adierazpenaren bitartez.



NORENTZAT



LH 1-4 ikasleentzat

EGUNA ETA
TOKIA



Asteartetan
Ferixaleku guneko gimnasioan

ORDUTEGIA



LH1-4 ostegunetan 17:00-18:00

KUOTA



30€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

PLAZA
MUGATUAK



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15

ARDURADUNAREN
KONTAKTUA




Olmar Elejalde, 679 619 530

IZEN-
EMATEAK



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20 tik irailaren 22ra





Ikasleek robotak diseinatu eta eraikitzen dituztenean estruktura, mekanika, zinematika, geometria, trigonometria, elektronika, logika, programazio, informatika eta kontrolean murgiltzen dira, hardware zein software estandarra erabiliz. Talde laneko konpromezua lantzen dute, denboraren zein baliabideen kudeaketaren garrantzia ikasiz.

Bideojoko baten garapen prozesuak sormena, pentsamendu logikoa eta pentsamendu algoritmikoa indartzen du.

NORENTZAT



LH 3-4 ikasleentzat

EGUNA ETA
TOKIA



Asteazkenak
Gaztelupe gunean

ORDUTEGIA



LH3-4 asteazkenak 17:00-18:15

KUOTA



46€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

PLAZA
MUGATUAK



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15

ARDURADUNAREN
KONTAKTUA




Alberto Asin, 660 382 674

IZEN-
EMATEAK



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20 tik irailaren 22ra





06

ZIRKO TAILERRA



Ikastaroan zirkoko espezialitate desberdinak landuko dira. Sorkuntza, trebakuntza eta oreka lantzeko espazioa ezin hobea da. Talde lanean oinarrituta, gorputz adierazpen teknika ezberdinak garatuz. Guzti hau esperimentatzea da helburua, ondo pasatuz. Landuko diren ekintzak: aire akrobaziak (tela, trapezioa eta aroa), huñahop-a, malabarrak, kariokak, hanka paluak, rolabola, globoflexia....

NORENTZAT



LH 1-4 ikasleentzat

EGUNA ETA
TOKIA



Astelehen eta asteazkenak
Gaztelupe guneko gimnasioan

ORDUTEGIA



LH1-2 astelehenetan 17:00-18:15
LH3-4 asteazkenetan 7:00-18:15

KUOTA



12 ikaslek izena eman ezker 37€ (8 kuota, azaroa-ekaina)

10 ikaslek izena eman ezker 44€ (8 kuota, azaroa-ekaina)

8 ikaslek izen man ezker 55€ (8 kuota, azaroa-ekaina)

PLAZA
MUGATUAK



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 12

ARDURADUNAREN
KONTAKTUA



Agurtzane Telleria, 609 556 210

IZEN-
EMATEAK



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20 tik irailaren 22ra





ABESBATZA



Abestea atsegin al duzu? Kantuaren bitartez lagunekin gozatu, lagun berriak egin eta ondo pasatzeko gogoz al zaude? Goikobalu Abesbatzak bere atea zabaltzen dizkizu, kantuaren eta abesbatzaren mundua ezagutarazteko eta gozarazteko asmoz. Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzan jarraituz, kantuaren hastapena lantzen dugu, hainbat esparru jorratuz: entonazioa, arnasketa, gorputz espresioa, armoniak... Guzti hau, nola ez, abestiak eta dantzak uztartuz. Zatoz kantuaz gozatzera!

NORENTZAT



LH 1-4 ikasleentzat

**EGUNA ETA
TOKIA**



Ostegunetan
Arimazubi gunean

ORDUTEGIA



17:00-18:00

KUOTA



10€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

**PLAZA
MUGATUAK**



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15

**ARDURADUNAREN
KONTAKTUA**



Maialen Gonzalez, 669 833 438

**IZEN-
EMATEAK**



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20 tik irailaren 22ra



08

SORMEN ETA ARTE TAILERRA

Marrazketa eta pinturaren oinarriak ikasiko ditugu eta praktikan jarriko ditugu teknika eta euskarri desberdinak erabiliz.

Etxeko aldizkarietara bizi berri bat emateko asmoz, collage teknika aplikatzen ikasiko dugu artelan berriak sortzeko.

Koloretako paperak moztu eta forma desberdinak emanaz, ilustrazioak sortuko ditugu.

Plastilina paper gainean jarriz, irudi desberdinak sortuko ditugu.

NORENTZAT



LH 1-4 ikasleentzat

EGUNA ETA
TOKIA



Ostegunak
Arimazubi gunean

ORDUTEGIA



LH1-2 17:00-18:00
LH3-4 18:00-19:00

KUOTA



35€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

PLAZA
MUGATUAK



Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 16

ARDURADUNAREN
KONTAKTUA



Edurne Kortabarria, 682 162 516

IZEN-
EMATEAK



Alexia bidez egingo da
Uztailaren 20tik irailaren 22ra



Izen-emate epea

Uztailaren 20tik irailaren 22ra

Ordaintzeko era

Tailerra bukatzean
hilaren 5ean
ikastolako
kontu korrontetik
pasatuko
da kuota.

Saioen hasiera eta amaiera

Urriko lehen astean hasiko
gara eta maiatzak 31an
bukatu

Ezaugarri
nagusiak





Oharrak

- Ekintza baterako dauden plaza baino eskaera gehiago jasotzen badira, 2 talde osatzen saiatuko gara, ezinezkoa izango balitz, zozketa egingo genuke.
- Ekintza aurrera ateratzeko gutxieneko ikasle kopurua lortu beharko da.
- Behin ikastaroa hasi eta gero baja eman ezker ez da ziurtatzen kuotraik ez dugunik kobratzen jarraituko.

BALDINTZA LEGALAK: Arizmendi ikastolak antolatutako ekintzetan formulario honetan izena eman duen umearen irudia elkarteak ateratako bideo edota argazkietan agertu daiteke. Ulertuz, aipatutako irudiak irakaskuntza edo ekintzaren promoziorako izango direla, edozein ikus-entzunezko komunikabidetan agertuz. Beste aldetik eskatutako datuak Arizmendi ikastola bezala erabili ahal izango ditu deskribatutako jardueraren helburuak bete ditzan. Lanketaren arduradunarenganako, Arizmendi ikastola, atzipean, zuzenketa, deuseztapen eta aurkaritza eskubideak erabili ahal izango dira Otalora Lizentziaduna kalea 8, 20500 Arrasate helbidera idatzi bat bidaliz.



bideoak

Laburpena



Luzea



Sakatu irudietan bideoak ikusteko